

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3176

AGINDUA, 2023ko ekainaren 23koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, «Koldo Mitxelena Kulturunea» (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Sailari atxikia) Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartzekoa.

Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legeak 6. artikuluan ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kulturaren arloko eskumena duen sailari dagokio Euskadiko Liburutegi Sistemak eskaintzen dituen liburutegi-zerbitzuen plangintza egitea. Eskumen hori Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren titulartasun publikoko liburutegi guztien gainean baliatuko du, bai eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean edo liburutegi-sisteman borondatez sartzten diren titulartasun pribatuko, foru-titulartasuneko edo Estatuko titulartasuneko liburutegien gainean ere.

Lege horrek 13.4 artikuluan ezartzen duenez, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen helburu nagusia da herritarrei eskueran jartzea sareko kultura- eta informazio-erregistroak, bai eta erabilerara publiko orokorreko liburutegien zerbitzu guztietan eskuragarri dauden kanpoko informazio- eta kultura-edukiak ere, ahalik eta gehien. Halaber, 13.2.b) artikulua aurreikusten du erabilerara publiko orokorreko liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean integratzea, dagozkion hitzarmenen bidez.

Bestalde, dagoeneko ezarrita daudenez Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuari atxikitako «Koldo Mitxelena Kulturunea» liburutegiaren katalogoak eta erabiltzaileak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean integratzeko prozesu teknikorako jarraitbideak eta errutinak, orain, Euskadiko Liburutegien Legearen 19. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hauxe egokitzen da: «13. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatian aurreikusitako liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean integratuko dira, lege honetan eta berau garatzeko arauetan eskatzen diren betekizunak egiaztatu ondoren, Eusko Jaurlaritzan kulturaren arloko eskumena duen saileko sailburuaren agindu baten bidez; agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da».

Bada, egiaztatu da aipatutako liburutegiek ondo betetzen dituztela Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean integratzeko moduan izateko legeak ezarrita dauzkan baldintzak (Euskadiko Liburutegiei buruzko Legearen 14. artikulukoak). Hortaz, honakoa

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– «Koldo Mitxelena Kulturunea» (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuari atxikia) Euskadiko Irakurketa Sare Publikoan sartzeko agindua ematea, Euskadiko Liburutegien Legearen 14. eta 19. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua arabera), hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko

2023ko uztailaren 3a, astelehena

Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. artikulua).

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 23a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.